

## **2018KO MAIATZAREN 28AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.**

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko zazpiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

1.- 2018KO UDAL AURREKONTUAREN KREDITU ALDAKETA

2.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

3.- GALDE ERANTZUNAK.

### **ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:**

#### **ALKATE-LEHENDAKARIA**

Joseba Izaguirre Arocena Jna. (Zegama Lantzen).

#### **ZINEGOTZIAK**

Maria Pilar Elorza Inchausti And. (Zegama Lantzen).

Izaskun Igoa Arizcorreta And. (Zegama Lantzen).

Ibon Zabaleta Urbizu Jna. (Zegama Lantzen).

Urko Gomez Ropón Jna. (EH Bildu).

Imanol Garmendia Iruretagoyena Jna. (EH Bildu).

Maria Luisa Gorrochategui Irastorza And. (EH Bildu).

### **EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:**

Maite Rodrigo Albizuri And. (Zegama Lantzen).

Olaia Elorza Iñarra And. (EH Bildu).

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

Bilkurari hasiera eman baino lehen, Alkateak, gai zerrendan agertzen ez diren honako gai hauek eztabaidatzea proposatzen du:

- DONEJAKUE BIDEKO PEREGRINO ETXEA –PASSIVHAUS ERAIKIN BIOKLIMATIKOA PROIEKTUA GAUZATZEARI BURUZKO KONPROMISOA.

Proposamenaren izaerak ikusi eta hau eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, aho batez erabakitzen du gaiak bilkura honetan eztabaidatzea.

## 1.- 2018KO UDAL AURREKONTUAREN KREDITU ALDAKETA

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Era berean, Kontuen Batzorde Bereziak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena irakurri dira.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak, bozketa egin eta gero, legezko gehiengoz, honako hau erabaki du:

**Lehenengoa.-** Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

### KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	32.000,00
6	INBERTSIO ERREALAK	176.940,00
<b>KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA</b>		<b>208.940,00</b>

### FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	208.940,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>208.940,00</b>

**Bigarrena.-** Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

## **2.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.**

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 03/0518 erabakia, maiatzaren 7koa, 7579 fakturen erlazioa onartuz, guztira 13.467,69 eurokoa.
- 04/0518 erabakia, maiatzaren 9koa, Jose Luis Perez Egualdek, Aitzkorrondo eremuan bordaren inskribaketa egiteko eskatutako egiaztatagiria bideratuz.
- 05/0518 erabakia, maiatzaren 9koa, Idoia Apaolaza Echeparek hiri hondakin solidoak jasotzeagatiko tasaren kobrantzan egindako baja eskaera onartuz.
- 06/0518 erabakia, maiatzaren 9koa, Jose M<sup>o</sup> Azurmendik egindako larre aprobetxamendua onartuz.
- 07/0518 erabakia, maiatzaren 15ekoa, Ignacio Ibarretxeren 557,81 euroko faktura onartuz (071z18 fk.zb.).
- 08/0518 erabakia, maiatzaren 22koa, Alberdi Makilak S.L.U.ren 398,00 euroko faktura onartuz.
- 09/0518 erabakia, maiatzaren 22koa, udako haur dinamizatzailleak kontratatzeke onartuen zerrenda onartuz.
- 010/0518 erabakia, maiatzaren 24koa, udako haur dinamizatzaille bezala kontratatuko direnen zerrenda onartuz.
- 011/0518 erabakia, maiatzaren 24koa, mendi maratoian lan egingo duten behin-behineko langileak kontratatuz.
- 012/0518 erabakia, maiatzaren 24koa, 7777 fakturen erlazioa onartuz, guztira 34.363,04 eurokoa.
- 013/0518 erabakia, maiatzaren 28koa, 2018 udal aurrekontuko 1 kreditu aldaketa onartuz (kreditu txertaketak).

### **DONEJAKUE BIDEKO PEREGRINO ETXEA –PASSIVHAUS ERAIKIN BIOKLIMATIKOA PROIEKTUA GAUZATZEARI BURUZKO KONPROMISOA.**

Landa guneeetako udalerrien sustapen, garapen eta dibertsifikazio ekonomikorako laguntza” programa ikusirik (2018ko apirilaren 24ko Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren Agindua).

Alkateak adierazten du, programa horren barnean, “Donejakue bideko peregrino etxea -Passivhaus eraikin bioklimatikoa” deritzon proiekturako laguntza eskatzeko borondatea dagoela.

Proposamena ikusirik, adierazitako proiektua Zegamarentzat eta bisitariarentzat onuragarria izango dela irizten da.

Horrenbestez, Udalbatzarrak, etorritako Zegama Lantzen taldeko lau zinegotzien eta EH Bildu taldeko hiru zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- “Donejakue bideko peregrino etxea -Passivhaus eraikin bioklimatikoa” deritzon proiektua gauzatzeko borondatea adierazten da.

Bigarrena.- Zentzu horretan ere, onartutako 1.0000.601.03.459.00.2018 aurrekontu sailan (DONEJAKUE BIDEKO PEREGRINO ETXEA-ERAIKIN BIOKLIMATIKOA), 170.000,00 bideratu dira adierazitako proiektua burutzeko.

Hirugarrena.- Doakienei erabaki hau jakinaraztea.

### **3.- GALDE ERANTZUNAK.**

Ez dira egiten.

Aztartzeko gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko arratsaldeko zazpiak eta berrogeita bost minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

#### **Eginbidea.**

Aurrean transkribaturiko akta, ..... orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan ..... zenbakitik ..... zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, ..... zenbakitik ..... zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2018ko .....k .....

**O.E./ VºBº**  
**ALKATEAK/EL ALCALDE**

#### **Diligencia.**

Para hacer constar que el acta que antecede tiene ..... folios, numerados del ..... al ..... en número de papel timbrado y del ..... al ..... en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a ..... de ..... de 2018.

**IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO**